

# Elkartek 48

INFORMAZIO ALDIZKARIA

Gogoratu ...

## ARABA


Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 96-98 behea  
Tel. eta Faxa: 945 225 516  
01009 VITORIA-GASTEIZ  
e-mail: eginez@euskalnet.net  
www.eginez.org

## GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean  
Tel.: 943 316 770 • Faxa: 943 316 379  
20018 DONOSTIA  
e-mail: elkartu@elkartu.org  
www.elkartu.org

## BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea  
Tel.: 94 405 36 66 • Faxa: 94 405 36 69  
48014 BILBAO  
e-mail: fekoor@fekoor.com  
www.fekoor.com



%100ean birziklatutako paperean inprimatua



# Laguntzen Gida

# KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

## ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**  
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteak.

## GIPUZKOA

- **AGAER**  
Gaixotasun erreumatikoek erasandakoen Gipuzkoako elkarteak.
- **AGE**  
Gipuzkoako epilepsiaren elkarteak.
- **AGI**  
Gipuzkoako Ikusmen Urria Dutenen Elkarteak.
- **ANAIDIA**  
Gutxitasuna duten pertsonen kristau senidetatasuna.
- **ASPARGI**  
Gipuzkoako parkinson elkarteak.
- **BEGIRIS**  
Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarteak.
- **BIZI-BIDE**  
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarteak.
- **DEBABARRENIKO GUTXITU FISIKOAK.**
- **KOXKA**  
Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarteak.
- **KEMEN**  
Pertsona Ezinduen Kirol Kluba.
- **LEZDI**  
Lezoko gutxituen elkarteak.

## BIZKAIA

- **ACCU**  
Bizkaiko Crohnen Eritasuna eta Ultzeradun Kolutisa duten Gaixoen Elkarteak.
- **ADELA**  
Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Bizkaiko Elkarteak.
- **ADELES**  
Bizkaiko Lupus Eritematoso Sistemikoa duten Gaixoen Elkarteak.
- **ADEMBI**  
Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak.
- **ADISA**  
Desgaitasuna duten Pertsonen Santurtziko Elkarteak.
- **AHEVA**  
Bizkaiko hemofiliaren elkarteak.
- **ALCER**  
Bizkaiko Giltzurruneko Gaixotasunen Aurkako Elkarteak.
- **ARGIA**  
Bizkaiko Ostomizatuen Elkarteak.
- **ASEBI**  
Asociación Bizkaia Elkarte Espina Bífida e Hidrocefalia.
- **ASPANOVAS**  
Bizkaiko Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteak.
- **AVAH**  
Bizkaiko Ataxia Hereditarioen Elkarteak.
- **BENE**  
Bizkaiko Eritasun Neuromuskularren Elkarteak.
- **BIDARI**  
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Ermuko Elkarteak.
- **BIZKEL**  
Bizkaiko Bizkarmuinaren Kaltezuak.
- **CODISFIBA**  
Barakaldoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteak.
- **EFELA**  
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Arratiako Elkarteak.
- **EMAN ESKUA**  
Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Bizkaiko Elkarteak.
- **ENEBIZIA ELKARTEA ZORROZA**
- **FRATER**  
Elbarrituen eta Gaixoen Kristautau Elkarteak.
- **LEVAR**  
Artritis Reumatoidea duten Pertsonen Bizkaiko Elkarteak.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzarekin egindako argitalpena.  
Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

# AURKIBIDEA

## Orokorra

Irigarritasunaren legearen 20. urteurrena .....	4
Baliabideen gida berria .....	6
Familia-harrera eta diskriminazioa .....	7
Langilerik gabeko gasolindegia .....	8
Euskal kultur ondarea ez da irigarria .....	9
Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) .....	10

## Araba

Tranbia .....	12
Komikia .....	12
Taxi-bonoa .....	13
Scotterrak eraztun berdean .....	14

## Bizkaia

Irigarritasun-alorreko salaketak .....	15
Jardueren agenda .....	15
Irigarritasunaren alde lanean .....	15
BBK-k eta INNOLAB plataformak bultzatutako proiektu digitala .....	17
Fekoor-en lehentasunak .....	17
2018ko jaduera soziokulturalaren programa .....	18
2018ko aisialdi-programa .....	18

## Gipuzkoa

Bizimodu independentea. Nik aukeratzen dut non, nola eta norekin .....	19
Mendekotasun-alorreko prestazio ekonomikoak arautzeko dekretu berria .....	20
Pertsona guztientzako turismoa .....	21
Lankidetzeta Igartubeiti eta Zumalakarregi museoekin .....	22
Emakumea eta desgaitasuna: ahalduztze-taldea .....	22

# IRISGARRITASUNAREN LEGEAREN 20. URTEURRENAREN HARIRA EGINDAKO JARDUERAK (2017-2018)

**20** urte beteko dira 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa, onartu zenetik. Hori dela eta, 2017. urtearen azken hiruhilekoan eta 2018aren lehen hilabeteetan, ELKARTE gure aldizkari monografikoa argitaratzeaz gain, ELKARTEANen jarduera ugari garatzen ari gara erakundeetan eragiteko, bilkura ugari izaten ari gara, eta jardunaldi eta ekintza instituzio-naletan parte hartzen ari gara.

2017ko apirilaren 25ean, **lehendakariarekin eta Enplegu eta Gizarte Politikak, Hezkuntza, eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailtako ordezkariarekin bildu ginen**. Bilkura hartan gure nahia azaldu genien, hau da, eremu instituzioaletik irisgarritasun unibertsalaren aldeko hainbat jarduera bultzatzea eta konpromiso erabakigarriak planteatzea.

Helburu berarekin bildu ginen 2017ko maiatzaren 17an Bakartxo Tejeria Otermin **Eusko Legebiltzarreko lehendakariarekin**, urteurren

honen harira Legebiltzarrean hainbat ekimen instituzionalen prestaketa lantzeko.

Proposamen ugari egin genituen, eta talde parlamentarioetan eragiten ahalegindu ginen; hala, adierazpen instituzional hau onartzea lortu genuen: *“Euskadik bat egiten du gure herritarrek Irisgarritasun Unibertsalerako duten eskubi-dearekin”*. Beraz, Irisgarritasuna Sustatzeko Legearen 20. Urteurrenaren harira, irisgarritasun unibertsalaren aldeko adierazpen instituzionala **onartu zen azaroaren 30eko Ohiko Osoko Bilkuran**.

Horrez gain, **Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren ez-ohiko saio** bat egitea bultzatu genuen; hain zuzen, 2017ko abenduaren 4an egin zen bilkura.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren ez-ohiko saio horretan, erakundeek eta administrazio publikoek Euskadin irisgarritasun unibertsala bultzatzeko erronkarekiko konpromisoa hartu zuten, 1997ko Euskal Legearen 20. urteurrenean. Lehendakariak argitaratutako prentsa-oharraren arabera, legealdi honetan “gure Erkidegoan Irisgarritasun Unibertsalerako Estrategiaren oinarriak” ezartzeko erronka planteatu zuen Urkullu lehendakariak, Eusko Jaurlaritzaren izenean, Euskadi erabat irisgarria lortzeko, bai hiri-espazio, eraikin publiko, lantoki eta etxebizitzetara dagokienean, bai komunikazio digitalaren aukera berriek irekitzen dituzten ingurune ez-fisikoei eta herritarren eskubideen osotasunari dagokienean. Honela adierazi zuen: *“era guztietako diskriminazioak saihestea*

*ahalbidetuko duen irisgarritasunaren kontzeptu berri bat definitu behar dugu, gure gizartearen gehienak dagoeneko gozatzen dituen eta bizitza sozialari berari lotzen zaizkion espazio, ondasun eta zerbitzuak jende guztiarentzat erabat irisgarriak izan daitezen”*.

Horrez gain, **Irisgarritasun Unibertsalerako Euskal Estrategia** lantzeko konpromisoa agertu zuen; hain zuzen ere, ELKARTEANetik



Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren ez-ohiko bilkura. 2017ko abenduaren 4a.

behin eta berriz aldarrikatu dugu ekimen hori azken urteetan. Estrategia horri dagokionez, planteatu zuen “zeharka, diziplina anitzetan eta sektore anitzetan garatu behar” dela, guztioi dagokigulako, zerbitzu publikoei, etxebizitzar-arloari, lan-munduari, komunikazioei eta aisialdiari, besteak beste. Horrez gain, Urkulluk gaineratu zuenez *“desgaitasuna duten pertsonen eskatzen duten irisgarritasunak kolektibo horien mugak gainditzen ditu, eta, hartara, pertsona guztiek aldarrika dezaketen eskari unibertsal bihurtzen da, bizitzaren esparru guztietan aplika daitekeena, Euskadi gizarte integra-tzaileagoa eta zuzenagoa izan dadin, gizarte modernoagoa eta hobea”*.

**Urteko lehen hiruhilekoan**, bi ekimen nabarmen egin dira **Eusko Legebiltzarrean**:

- Alde batetik, **Eusko Legebiltzarrak 2018ko urtarrilaren 29an antolatutako “Irisgarritasuna Sustatzeko Legea: 20 urte berdintasuna eraikitzen” mintegian** hartu zuen parte ELKARTEANek. Legea onartu zenetik gaur arte egindakoari buruzko gure balantzea besteekin elkarbanatzeko aukera izan genuen, berriro ere, eta proposamen zehatzak egin genituen irisgarritasun unibertsalaren aldeko konpromiso erabakigarriak zehaztu behar diren hainbat alorretan: garraioa, espazio publikoak, eraikuntza, etxebizitza, erkidegoko baliabideak, aisialdia, kultura, kirola, osasuna, gizarte-zerbitzuak, etab.
- Bestalde, **2018ko otsailaren 7an**, ELKARTEANek erakundeetan eragiteko lanaren azken ekimena egin zuen; hain zuzen, Euskadiko Irisgarritasun legearen 20. urteurrenaren harira, **Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordean agerrialdia** egin genuen, eta Irisgarritasun Unibertsalaren Legea betetzeari eta arlo horretako erronkei buruz hitz egin genuen.

Agerraldi horretan, gure elkartearen ibilbidearen berri eman genuen, eta 1997ko Legea onartzeko elkarteak zer parte-hartze izan zuen azaldu zen. Horrez gain, irisgarritasun unibertsalaz eta pertsona guztientzako diseinuari buruz zer



ikuspegi dugun planteatu genuen, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan oinarrituta; egungo egoerari buruzko gure hausnarketa azaldu genuen, eskura ditugun datuetan eta azterketetan oinarrituz; eta proposamen zehatzak egin genituen, irisgarritasun unibertsalaren aldeko konpromiso beteko jarduera erabakigarriak gauzatu behar diren arlo guztietan: hiri-ingurunea eta espazio publikoak, etxebizitza-arloa, eraikin publikoak eta erabile-ra publikoko eraikinak, hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, garraio publikoa, aparkatzeko txartela, turismoa, kultura, kontratazio publikoa, datuak, azterketa, estatistikak...

Une honetan, **Irisgarritasun Unibertsalerako Euskal Estrategiaren** lanketan parte hartzen ari gara, Irisgarritasun Unibertsalaren Euskal Kontseiluan dauden ELKARTEANeko erakundeen bitartez.

ELKARTEANen pozik hartu ditugu politikan eta erakundeetan eraginez lortutako emaitzak, irisgarritasuna berriro ere agenda eta eztabaida politikoa sartzea lortu baitugu gure ekimenari esker. Espero dugu Legearen 20. urteurrenaren harira egin diren hainbat ekimenetan eta ekitaldi politikotan adierazitako konpromisoak neurri erabakigarrien bitartez gauzatzea. Guk gertutik zainduko dugu, eta parte-hartze aktiboaz lagunduko dugu Estrategia horretan behar bezala jaso dadin desgaitasuna dugun pertsonok, egunez egun gure eskubideak urratzen dituzten oztipoei aurre eginez, bizi dugun errealitatearen diagnosi.

Gure parte-hartzea eragozten duten eta, komunitateko baliabide guztiak erabiltzean, diskriminatu egiten gaituzten lege-urraketak salatuz jarraituko dugu aurrerantzean ere.

## EUSKADIN GUTXITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONENTZAKO BALIABIDEEN GIDA AURKEZTU DUGU

**20**18ko martxoaren 9an aurkeztu genuen Euskadin desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako baliabideen gidaren argitalpen berria, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntzarekin.

Gida horretan (<http://elkartu.org/pdf/guia-de-recursos.pdf>), Euskadin, gutxitasun fisikoa duten pertsonak, eskubide osoko herritarrak izanik, zer baliabide, laguntza eta diru-laguntza dituzten jasotzen da. Horrez gain, informazio-iturri garrantzitsua da beren lanbidea dela eta gizarte-alarrean aritzen diren pertsona guztientzat, lagungarri izango baitzaie inguruan zer prestazio eta baliabide dauden azaltzean. Baliabideei eta laguntzei buruzko oinarritzko informazio orokorra biltzen da dokumentu horretan: identifikazioa, definizioa, edukia eta harremanetarako kontaktua, kasu bakoitzerako behar informazioa zabaltzeko edo eguneratzeko.

Gida honetan berrikuntza bat sartu dugu; hau da, arlo bakoitzean zer posizio edo iritzi dugun nabarmendu dugu, araudian jasotako eskubideen markoaren arabera; bereziki, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren arabera.

Dokumentuan gai hauei buruzko informazioa jasotzen da:

- Informazio- eta orientazio-zerbitzuak.
- Balorazio- eta aitortpen-prozedurak.
- Arreta goiztiarreko eremuko baliabideak eta laguntzak.



- Hezkuntza-alarreko baliabideak eta laguntzak.
- Enplegu-alarreko baliabideak eta laguntzak.
- Etxebizitza-alarreko baliabideak eta laguntzak.
- Osasun-alarreko baliabideak eta laguntzak.
- Garraio-alarreko baliabideak eta laguntzak.
- Gizarte-segurantzako pentsio eta prestazioen alorreko baliabideak eta laguntzak.
- Familia/zaintzaileen alorreko baliabideak eta laguntzak.
- Fiskalitate-alarreko baliabideak eta laguntzak.
- Justizia-alarreko baliabideak eta laguntzak.
- Gizarte-inklusiorako prestazio ekonomikoen alorreko baliabideak eta laguntzak.
- Autonomiarako eta mendekotasunaren arretarako sistemako prestazio ekonomikoen eremuko baliabideak eta laguntzak.
- Laguntza-produktuen eta laguntza teknikoaren alorreko baliabideak eta laguntzak.
- Autonomia pertsonalerako eta bizitza independenterako gizarte-zerbitzuen sistemaren baliabideak eta laguntzak.

Gidaren ale bat eskuratu nahi izanez gero, ELKARTU, EGINAREN EGINEZ eta FEKOOR elkarten egoitzetan dituzu eskuragarri, eta, horrez gain, elkarte horien eta ELKARTEN webguneetan kontsulta edo eskura (deslagartu) daiteke.

# EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAK (EGAB) BERE EGIN DU ELKARTEAN-EK JARRITAKO SALAKETA, FAMILIA-HARRERA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUAK DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK DISKRIMINATZEARI BURUZKOA

**E**uskadiko Ekonomia eta Gizarte Ara-  
zoetarako Batzordeak (EGAB) –Jaur-  
laritzaren eta Legebiltzarraren ahol-  
kularitza-erakundea–, hainbat ekonomia- eta  
gizarte-arduradunek Euskal Herriko politika  
ekonomikoan eta sozialean parte hartzea bul-  
tztatzen duenak, Euskal Autonomia Erkidegoan  
familia-harrera arautzen duen dekretu-proiek-  
tuari buruzko irizpena egin du; bertan, zehaztu  
du dekretu-proiektu horretako baldintzek eta  
irizpideek desgaitasuna duten pertsonak diskri-  
minatzen dituela.

Irizpen horretan, EGABek bere egin du ELKAR-  
TEANetik egin genuen salaketa, hainbat komu-  
nikabidetan eta forotan planteatu genuena; hain  
zuzen, salatu genuen desgaitasuna dugun perso-  
nok diskriminaturik gaudela dekretu-proiektu  
horretan, desgaitasuna izate hutsagatik ukatu  
egiten baitzaigu behar eta baldintza bereziak  
dituzten adingabeen harrera-pertsona edo haien  
harrera-familiako kide izateko eskubidea. 18.1.c)  
artikuluari berariaz diskriminatzen gaitu, honela

eskatzen baitu: “euren burua familia-harrera-  
rako eskaintzen duten pertsonak edo haiekin  
bizi direnek ez izatea desgaitasun fisiko, psikiko  
edo intelektualik edo mendekotasun-egoerarik,  
baldin eta horrek beharrezko egiten badu beste  
pertsona baten edo batzuen artapena behar du-  
tela edo laguntza garrantzitsuak behar dituztela  
eguneroko bizitzaren oinarritzko jarduerak egite-  
ko, bereziki, garbiketa pertsonalari dagozkionak  
edo, aitortutako desgaitasun intelektuala edo  
gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan, au-  
tonomiarako bestelako laguntzak; izan ere, ho-  
riek beren ezaugarriengatik edo bilakaeragatik  
zaildu egin dezakete adingabearen artapen edo  
zainketa egokia edo haren garapen integralari  
edo integrazioari kalte egin baitiezaioke, adin-  
nagusitasuna lortu ez bitartean”.

Hain zuzen ere, EGABek bere diktamenean  
adierazten du betekizun eta irizpide horiek  
“desgaitasuna duten pertsonak diskriminatzen  
dituztela; izan ere, harrera-pertsona izan ezin  
direlako ustea ezartzen dute, eta horrek Des-




*gaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren aurka egiten du, bai eta azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren –horren bidez onetsi zen Desgaitasuna duten pertsonen eta euren inklusio sozialari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina– eta Espainiako Konstituzioaren aurka ere. Gainera, presuntzio horrek desgaitasuna duten pertsonen guraso biologiko izateko gaitasunik ez dutela ere onartzea dakar. Gainera, dekretuak frogatu behar diren kargaren inbertsioa egiten du, oro har ezartzen baitu desgaitasuna duten pertsonak ez direla gai harrera gauzatzeko, gai direla pentsarazi beharrean, indarreko ordenamendu juridikoak ezartzen duenarekin bat. Gure aburuz, Administrazio egokiak egiaztatu behar du, edonola ere, ezintasun hori”.*

Bai ELKARTEANek bai gure lurralde-elkarteek horrelako diskriminazio-egoerak salatuz jarraituko dugu, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa urratzeaz gain, kontraesanean baitaude gure eskubideak aitortzeko eta bermatzeko bidean izan ditugun bestelako lorpenekin (adibidez, boto-eskubidea eta ezkontza-eskubidea).

## **EUSKO JAURLARITZA PRESTATZEN ARI DEN DEKRETUARI EKARPENAK EGINEZ, ELKARTEAN-ETIK ADIERAZI DUGU EZ GAUDELA ADOS LANGILERIK GABEKO GASOLINDEGIEKIN**

**O**tsailean agiri bat bidali genuen Eusko Jaurlaritzara, Euskal Autonomia Erkidegoko ibilgailuen hornidurarako



langilerik gabeko instalazioek bete beharreko eskakizunei buruzko Dekretuari dagokionez zer iritzi dugun jakinarazteko eta arlo horretan gure proposamenak egiteko.

Dokumentu horretan adierazi genuen ez geundela ados ibilgailuen hornidurarako langilerik edo jendearen arretarako pertsonarik gabeko instalazioak egotearekin; hau da, gure iritziak, gutxienez pertsona batek egon beharko luke bertan, arreta emateko. Uste dugu beharrezkoa dela gasolindegia guztietan, une oro, jendearen arretarako langileak izatea, eta, horrez gain, langile horiek obligazioa izan beharko lukete leku horietan depositua betetzen dute desgaituei babesa eta laguntza emateko.

Gure iritziak, instalazio-mota horiek desgaitasuna duten pertsona asko diskriminatzen dituzte, arreta emango dien langilerik gabe ezinezko egiten baitaie zerbitzu horiek erabiltzea. Izan ere askotarikoak eta ugariak dira desgaituok izan ditzakegun arazoak edo zailtasunak: lekualdatzeko, mugitzeko, zerbait erabiltzeko, ulertzeko, komunikatzeko, etab. Baldintza eta behar horiek guztiak kontuan izan behar dira, ez baita nahikoa irisgarritasun-araudia betetzea (tutu malgua edo ordaintzeko modua X metrotara jartzea, biraketa-angeluak errespetatzea, sarbideak irisgarriak



izatea edo komun egokituak izatea), nahiz eta hori ere ezinbestekoa den irisgarritasun-legedia betetzeko. Hau da, laguntzarako langile bat izatea funtsezkoa eta ordezkazina da zenbait egoeratan, esaterako, makuluekin mugitu behar izatean, gauzak eskuz erabiltzeko gaitasunik ez denean, informazioa ulertu, ikusi edo entzun ezin denean, edota ez dugunean behar beste indar hornitzeko tutu malguari heltzeko, hari tira egiteko edo autoan eusteko.

Funtsezko zerbitzu bat baldintza berdinetan ematea, inolako tratu-bereizketarik egin gabe, bai eta hornitzeko lekuan bertan langile bat izatea eta langile horrek beharrezkoa den arreta edo laguntza ematea ere, Europako araudiaren eskakizunak dira; araudi horren arabera, zehazki, jendearentzako ondasunak, produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten hornitzaileek zentzuzko doikuntzak edo aldaketak egin behar dituzte, desgaitasunagatiko diskriminaziorik ez egiteko.

Hori guztia dela eta, adierazi dugu ez gaudela ados Euskal Autonomia Erkidegoan ibilgailuen hornidurarako langilerik gabeko instalazioek bete beharreko eskakizunak arautzeko Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ekimenarekin, gure iritziz Euskadiko gasolindegi guztietan egon behar baitu norbaitek jendeari arreta emateko.

## ELKARTEAN-ETIK EUSKO JAURLARITZARI ADIERAZI DIOGU EUSKAL KULTUR ONDAREARI BURUZKO LEGE-PROIEKTUAK EZ DUELA IRISGARRITASUNA AINTZAT HARTZEN

**E**LKARTEANetik gure aldarrikapenak eta proposamenak helarazi dizkiogu Eusko Jaurlaritzari, Euskal Kultur Ondareari buruzko Legeak kultura-ondarea eskura izateko eta ondare horretaz gozatzeko dugun eskubidea berma dezan, gainerako herritarren baldintza eta aukera berdinetan.

Aurkeztutako lege-proiektuaren testuan ez da ez kontuan hartu ez txertatu irisgarritasun unibertsalerako beharrezko diren baldintzak bermatzeko neurririk. Antza, maila gorenekotzat hartzen den ondasun juridiko bat (Euskal kultur ondarea) babestea ez da bateragarria beste ondasun juridiko bat (beste edozein herritarrek bezala, ondarea eskura izateko eta ondare horretaz gozatzeko dugun eskubidea) babestearekin.

Gure iritziz, lege horrek ezin du alde batera utzi Euskadin irisgarritasunaren arloan aplikatzekoa den araudia; ezinbestean bete behar du. Hau da, beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar ditu, irisgarritasun unibertsalaren baldintzak ziurtatzeko eta desgaitasuna duen pertsona orok, beste edozein pertsonak bezala, kultura-ondareaz gozatzeko duen eskubidea bermatzeko.

Horrez gain, uste dugu guztiz bateragarriak eta osagarriak direla gure erkidegoko kultura-ondarea babestea eta herritarrek eskubidea izatea ondare horretaz baldintza berdinetan eta inongo muga edo bazterketarik gabe gozatzeko. Horretarako, soluzio, garapen eta gailu tekniko nahiz teknologiko ugari daude eskura merkatuan; hain zuzen, dagoeneko ikusten ditugu beste lurralde eta herrialde batzuetako kultura-ondarea osatzen duten hainbat eraikin, azpiegitura eta instalazioetan. Gure iritziz, esparru juridikoan zehaztutako irisgarritasun unibertsalerako baldintzak bermatu egin behar dira, eta, beharrezkoa bada, horretarako dauden soluzio teknologiko guztiak baliatu behar dira.

## **DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA (DSBE) HOBETZEKO GURE JARRERA ETA IRITZIA AZALDU GENUEN ENPLEGU, GIZARTE POLITIKA ETA BERDINTASUN BATZORDEAN**

**20**17ko azaroaren 21ean, ELKARTEANek agerraldia egin zuen Enplegu, Gizarte Politika eta Berdintasun Batzordean, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta hobetzeko Eusko Jaurlaritzak bultzatu duen prozesuan, gure iritzia azaltzeko eta zenbait proposamen egiteko.

Agerraldi horretan gure iritzia eta proposamenak azaltzeko eta arrazoitzeko aukera izan genuen, defendatzen dugun inklusioko eta bizimodu independentearen eremuan oinarrituta. Zehazki, adierazi genuen erreforma horrek gai hauek izan behar dituela kontuan:

- 1) DSBEk eskaera egiten duen pertsona oro-ren gizarteratzea, parte-hartzea eta bizi-modu independentea lortzeko prozesuak erraztea, eta, desgaitasuna duten pertsonen dagokienez,** Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren **19. artikuluan zehaztutakoa betetzea** (bizimodu independentea izateko eskubidea eta gizartean kontuan hartua izateko eskubidea). Prestazio horren araudian ezin da alboratu desgaitasuna dugun pertsonok bizi dugun errealitatea: diskriminazio-egoerei aurre egin behar izaten diegu, eta, beste pertsonekin alderatuta, ez dugu aukera-berdintasunik. Hau da, askotariko oztopoak gainditu behar izaten ditugu behar bezala gizarteratzeko; oztopo horiek enpleguarekin lotuta egon ohi dira askotan, baina baita gizartean parte hartzeko eta erabateko inklusioa lortzeko funtsezkoak diren bestelako gizarte-laguntzekin ere. Horregatik, beharrezkoa da DSBE onartzearekin batera hainbat neurri eraginkor sustatzea, desgaitasuna duten pertsonak enplegu-modalitate arruntan txertatzea bultzatzeko (hori baita formula koherente bakarra gizartean parte hartzeari eta behar bezalako inklusioa izateari buruzko Konbentzioaren 27. artikulurekin), bai eta behar besteko DSBE prestazioa bermatzea ere, gainerako pertsonen abiapuntu bera izan dezaten, haien baldintza eta aukera berdinetan.
- 2) DSBEk ez oztopatzea pentsio bat jasotzen duten pertsonen bizikidetzaren unitate independente bat eratuz jarraitzeko aukera,** gaur egun zehazten den moduan. Horri esker, pentsio bat (bereziki kotizatu gabeko pentsioa) jasotzen duten desgaituek DSBE jaso dezakete, familiakoekin bizi arren; bizikidetzaren egoera hori, gainera, mendekotasun-egoera baten ondorioa izan ohi da askotan, edota bizi-modu independentea diseinatzeko eta aurrera eramateko nahikoa baliabide ez izatearen ondorioa.
- 3) Ardurapean seme-alaba bat izateagatik prestazioa pentsio batekin parekatzeari dagokienez, DSBEk aukera hori aitortzea eta bermatzea, bizikidetzaren unitate indepen-**

**dente bat eratzeko.** Hain zuzen ere, ELKARTEANetik hori aldarrikatu izan dugu Eusko Jaurlaritzarekin izandako hainbat topaketatan, bilertan edota hari bidalitako dokumentuetan, eta, gainera, ideia hori bat dator Arartekoak 2015eko uztailaren 21eko 2015R-777-14 Ebazpenean eta “*Diagnostiko-txostena, Lanbidek DSBE eta EPO prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017*” txostenean adierazitakoarekin.

**4) Desgaitasuna dugunok aurre egin behar izaten diegun gainkostuak aintzat hartzea.**

Gure desgaitasunaren ondorioz egunerokoan izaten ditugun mugak edo zailtasunak direla-eta, gainkostuak izan ohi ditugu hainbat alderditan, hala nola dieta bereziak, sendagaiak, laguntza-produktuak, etxearen egokitzapen-lanak, eta koordainketa bete behar izaten duten gizarte-baliabideak. Faktore horrek desparekotasun-egoera batean jartzen gaitu gainerako biztanleriarekin alderatuta, eta, beraz, kontuan hartu beharko litzateke DSBEren araudi berrian.

**5) Etxe bakoitzean DSBE bakarra ematea zehazten duen irizpide orokorraz gaindi aurreikusitako salbuespenei dagokienez, indarrean den legediarekin alderatuta atzera ez egitea.** DSBE “partekatzea” planteatzea edo antzeko proposamenak egiteak egoera desatseginak eragin ditzake espazio fisiko

berean (adibidez, etxe batean) elkarrekin bizi-tzeaz harago bestelako loturarik edo harremanik ez duten bizikidetz-unitateen artean.

**6) DSBEren izapidetze-prozesuaren fase guztietan (eskuratzea, informazioa, balorazioa, orientazioa, ebazpena eta justifikazioa) publikotasuna bermatzea.** Ez dugu onartzen pertsona espezifikoztat prozedura espezifikoa jartzea (prozedura-fase horietako guztietan edo batean) erakunde espezifikoetan (are gutxiago, erakunde horiek pribatuak izatea). Prozedura osoa administrazio publikoek gauzatu eta kudeatu behar dute; kudeaketak publikoa izan behar du.

Apirilaren 27an erregistratu zuten EAJ eta PSE-EE alderdiek Diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako lege-proposamena Eusko Legebiltzarrean. Lege horren Legebiltzarreko izapidetze-prozesuak iraun bitartean, ELKARTEANetik gure iritzia eta jarrera defendatuz jarraituko dugu. Hain zuzen, lehenasuna emango diogu, indarrean den legediak bermaturiko eskubideei dagokienez, lege berrian atzera ez egiteari, eta, horrez gain, nahikoa baliabide ekonomiko ez dituzten pertsonen inklusioko eta bizitza independentea lortzeko proiektuak aurrera eramanez ahal izatea bermatzen duen DSBE defendatuko dugu. Bereziki hartuko ditugu kontuan desgaitasuna duten pertsonen dituzten zailtasunak eta bizi duten desabantaila-egoera.



## TRANBIA

20 18ko otsailaren 6ko epaian, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak arrazoia eman zion berriro **eginaren eginez** elkarteari.

Auto irmo batean, zehaztu zuen ez duela zentzurik Administrazioak gure taldearen eskubideak aitortzea, baina, gero, praktikan, ezerezean uztea, horiek betetzea oso zaila dela agudiatuta.

Hala, atzera bota zuen Euskal Autonomia Erdigoko Administrazio Orokorraren xedea, hau da, 68/2000 Dekretua, irisgarritasunerako arau teknikoari buruzkoa, eta 20/97 Legea, Irisgarritasuna Sustatzekoa, ez betetzea Gasteizko tranbieren nasa-eremu osoan eta egokitze-lanak egiteko epea luzatzeko eskatzea.

**Administrazioak 1,80 metroko zabalera bermatu behar du nasa osoan, bloke teknikoak –txartelen makinak dauden gunea– barne, leku horretan egin behar izaten baitira maniobrak eta hori baita arrisku handieneko lekua.** Horrenbestez, bere osotasunean bete behar da dekretuan

eskatutakoa, bestela ez bailirateke zainduko edo babestuko desgaitasuna/aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubideak.

Beraz, ez zen onartu geltokiak eta geralekuak araudi tekniko horren arabera egokitzeko ezintasuna, eta adierazi zen, ezintasuna baino, obra konplexu baino beharrezko horiek egiteko borondaterik eza zegoela arrazoiketa horren atzean. *“Obrak konplexuak izateak ez du esan nahi ezinezkoak direnik. Beraz, Administrazioak badakiz erreforma egin behar dituen, eta nola; lan horiek gauzatu egin behar ditu”* adierazten du autoan.

**Administrazioak egokitzapen-lanetarako 3 hilabeteko luzapena eskatzeari dagokionez, eskaera hori ere atzera bota zen.** *“Uste dugu Administrazioak nahikoa denbora izan duela eskatutako erreforma horiek egiteko. Beraz, ezin da epaian agindutako denbora gehiago luzatu”.*

## KOMIKIA

**A**NIZTASUNAREN ALDEKO KOMIKIA izeneko proiektuaren bitartez, **eginaren eginez** elkarteko kideok hainbat arlotan (hirigintza, arkitektura, komunikazioa, garraioa...) izaten ditugun oztopo eta trabeak buruzko **informazioa zabaldu** nahi izan diegu erakunde publiko nahiz pribatuei eta Gasteizko herritarrei, **eta** haiek **kontzientziatu** nahi izan ditugu; izan ere, aniztasun funtzionala dugun pertsonok gure bizitzako hainbat esparrutan aurkitzen ditugu oztopo horiek: autonomia pertsonala, lan-merkatuan sartzeko aukera, hezkuntzako inklusioa, aisialdia, etab.

Kanpaina horren bitartez, aniztasun funtzionala duten pertsonen **autonomiarako eta gizarte-inklusiorako duten nahia transmititu** nahi izan dugu, eta, horrez gain, gure taldeko pertsonen **aukerak besteekin berdintzea aldarrikatu**.

Horrez gain, herritarrak aniztasun funtzionala duen pertsona batek egunerokoan bizi dituen zenbait diskriminazio-egoerari buruz **hausnartzen jartzea** izan da gure nahia, eta, aldi berean,





gizarte-inklusioa lortzeko konponbideak proposatzea.

Horren guztiaren helburua izan da **aniztasunarekiko errespetua eta gutxitasun fisikoa duten pertsonenganako elkartasuna sustatzea**; hau da, **gizarte osoa kontzientziatu nahi da desgaitasuna duten pertsonen oinarritzko eskubideez**, eskubide horiek bermatu egin behar baitira, nahiz eta, egun, oraindik, urratu egiten diren.

Aniztasunaren aldeko komikia esku-orri zabalgarri bat da. Bertan, aniztasun funtzionala dugun pertsonok zailtasunak izaten ditugun eguneroko bizitzako 12 egoera edo leku agertzen dira: parkea, ikasgela, zinema, erosketak egitea, aisialdia/kontzertuak, zentro publiko eta pribatueta sartzea, kalea, garraioa, gordetako aparkalekuak, komun egokituak, igogailuak eta altzariak.

Egoera horietako bakoitza bi binetatan zatituta dago. Lehengoan, gaur egun bizi dugun erreali-

tatea erakusten da, eta, bigarreanean, nola aldatu daitekeen errealitate hori eta nola bihur daitekeen irisgarri pertsona guztientzat, baita aniztasun funtzionala dutenentzat ere.

## TAXI-BONOA

**20**17ko azaroaren 29an, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzako urteroko diru-laguntzen deialdia argitaratu zuen ALHAOn, ordeko garraibide gisa taxi-zerbitzua erabili ahal izan dezaten. Araudi berri horretan, funtsezko aldaketak aurkitu ditugu:

- Prestazioaren zorroari buruzko Dekretua indarrean sartzean, Arabako Foru Aldundiak kudeatuko du eskusiboki.
- Udalerrri guztietara zabalduko ditu zerbitzu hori erabiltzeko laguntzak.
- Laguntza eskuratzeko irizpideak bateratuko ditu, zer herritan bizi den kontuan hartu gabe.
- Aurreordainketako txartel bidez funtzionatzen du.

*eginaren eginez* elkartetik gutun bat bidali diogu Gizarte Zerbitzuetako foru-diputatuari, alderdi hauekin ados ez gaudela adierazteko:

- Desgaitasuna/aniztasun funtzionala duten pertsonak biltzen dituzten elkarteei ez zaie ezer galdetu, ez eta aurrez ezer jakinarazi ere, nahiz eta urriaren 19an Desgaituen Kontseiluaren bilkura bat egin zen eta bilkura hartako gai-zerrendan “Taxi-bonoa: adin-muga, txartel bidez ordaintzeko modu berriaren ebaluazioa” gaitzat agertzen zen.

- Mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzako ordeko garraiorako programa aitzindaria zen hasiera batean, baina prestazio ekonomiko huts bihurtu da, errenta-irizpideak txertatuta eta adin-irizpideak aldatuta.



- Azken gai horri dagokionez, 1989. urtean, jada, gutxieneko adina 16 urtetatik 12 urtetara jaistea lortu zuen elkarte honek, baina, orain, berriro ere, 16 urteko gutxieneko adina ezarri du baldintzatat Administrazioak; horrenbestez, diru-laguntzak eskuratzeko aukerarik gabe utzi dira 12 eta 16 urte arteko gazteak, eta kalte larria eragin die, erabaki hori justifikatzen duen inolako arrazoirik gabe.
- Programa baten kudeaketan aldaketak egiteak ez du zertan eragin kaltegarria izan lehendik ere programa horren erabiltzaile ziren pertsonengan. Argitaratutako Dekretuan, badira ildo horretako baldintzak; zehazki, honela dio **III. kapituluko 14. artikuluan –Laguntzen finantzaketa eta zenbatekoak finkatzea. Laguntzak finkatzeko irizpideak–**, 3. atalean: *“Laguntzak baliagarri dagoen kreditua agortu arte emango dira, eskaera (ondo bete-ta) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen erregistroan jaso den dataren eta orduaren arabera lehentasun ordenan”*. Beraz, gerta daiteke jendea laguntzarik gabe geratzea nahiz eta baldintza guztiak betetzen dituen eta mugikortasun-baremoaren balorazioa duten, eta horrek, noski, pertsona horien kalterako izango da.

## SCOOTERRAK ERAZTUN BERDEAN

‘M’ejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz 2017’ udal-programaren baitan, herritarrek botoen bidez erabaki zuten *eginaren eginez* elkarteak aurkeztutako “Eraztun berdeko irisgarritasuna hobetzea aniztasun funtzionala duten pertsonentzat” programa onartzea.

Horrenbestez, Gasteizko Udalak **scooter motako lau ibilgailu** erosi ditu, Salburuako hezeguneko ibilbidea errazteko mugikortasun urritua duten pertsona guztiei (adinagatik, desgaitasuna/aniztasun funtzionala izateagatik edo aldi baterako ezintasun fisikoa izateagatik ibilbidea oinez nahiz bizikletaz egiteko zailtasunak dituzten pertsonen), bakoitza non bizi den kontuan hartu gabe.

Scooterrak **doan** aloka daitezke.

Ibilgailu horiek erabili ahal izateko, nahikoa da Ataria zentrora gerturatzea (Salburuako Hezeguneeen Interpretazio Zentroa, Biosfera pasealekua 4), eta harreraren adieraztea zerbitzu hori erabili nahi duzula; ondoren, inprimaki soil bat bete beharko duzu.

Zerbitzua ordutegi honetan erabil daiteke: 11:00etatik 13:45era, eta 16:00etatik 16:45era, zentroa irekita dagoen egun guztietan.

Bestalde, Eraztun Berdeko irisgarritasuna hobetzeko xedez, Gasteizko Udalak **58 banku berri** jarri ditu ingurune horretan.

Salburua Euskadiko hezegune kontinental baliotsuenetakoa bat da. Urmael nagusiak inguratzen eta lotzen dituzten askotariko ibilbideetan barrena ibil daiteke, eta, besteak beste, oreinak, mirotzak, mokoabalak, bisoi europarrak eta baso-igel jauzikariak daude bertan.



# JAKINARAZI FEKOOR ERAKUNDEARI IRISGARRITASUN- ALORREKO ZURE SALAKETA

**F**EKOOR erakundeak tresna berri bat jarri du abian, hiri-inguruetan aurkitzen dituzun irisgarritasun-arazoen salaketak Whatsapp bidez bidal diezazkiguzun (zintarriak oinezkoentzako pasabidean, eskailerak, estuguneak edo espaloirik gabeko gunek, irisgarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten eraikin publikoak, farmaziak, estankoak, garrario publikoak, arrisku-eremuak edo egokitu gabeak...).

Horretarako, **691 289 314** telefono-zenbakia zure kontaktuetan sartu behar duzu lehenbizi, eta, gero, urrats hauei jarraitu behar diezu: 1. Atera salaketa-argazkia; 2. Idatzi 3 xehetasun garrantzitsu argazkiaren azalpenean (Gaia: FEKOOR Salaketa; argazkia bidaltzen duen pertsonaren izen-abizenak; eta salaketa jaso den lekua edo helbidea); eta 3. Bidali gure telefono-zenbakira (**619 289 314**).

## JARDUEREN AGENDA

“Uretara” kirol inklusiboa Bilboko itsasadarrean.

**F**EKOORek, Bizkaiko Kirol Egokitua-ren Federazioarekin elkarlanean, uretako hainbat kirol-jarduera antolatu ditu Bilboko itsasadarrean (Pio Baroja Plazaren inguruan). Ekitaldia uztailaren 14an izango da, 10:00etatik 14:00etara, eta Bilboats ontzien atrakalekutik abiatuta, kirol-mota ugari praktikatutako ahal izango dira, hala nola piraguismoa eta paddle surfa. Ekipamendu egokituak eta begiraleak izango ditugu parte-hartzaile guztientzat; horregatik, beharrezkoa da izena ematerakoan zer laguntza eta behar dituzun guri jakinaraztea.

Doako jarduera da, eta lekuak mugatuak dira; beraz, lekua gorde eta izena emateko, deitu telefono-zenbaki hauetara:

**944 051 780 eta 944 053 666.**



### Elkarteen Jaia

Irailaren 23an, 11:00etatik 15:00etara, Bilboko IV. Elkarten Jaia ospatuko dugu Bilboko Areatzako Pasealekuan, FEKOOR osatzen dugun 20 elkarteok banaka nahiz taldean egiten dugun lana herritar guztiak partekatzeko.

Goizean zehar, informaziorako gune bat, haurrentzako tailerrak, musika-animazioa eta txosna izango ditugu, besteak beste, eta, beraz, bertan parte hartzea gonbidatzen zaituztegu.

## IRISGARRITASUNAREN ALDE LANEA

### Getxoko Udala

**F**EKOORek bilkura ugari egin ditu Getxoko Udalarekin, Udaleko irisgarritasun-planeari irisgarritasunerako neurri zehatzak ezartzeko; azkena, hain zuzen, martxan jarri berri den Algortako Portu Zaharreko igogailua izan da, Ereagako hondartza erdigunearekin lotzen duena.

Dokumentuan hainbat ekintza proposatzen

dira, esate baterako, hiri-ingurunearen eta udal eraikin eta instalazioen zuzeneko ebaluazioa; etxebizitzaren irisgarritasuna bermatzeko, nahiz merkataritza eta ostalaritza irisgarria sustatzeko laguntzak; informazioa eskura izatea; eta sentsibilizazio-, prestakuntza- eta koordinazio-ekintzak, irisgarritasunaren garapenean esku hartzen duten hainbat eragilerentzat, betiere mugikortasun urriko pertsonen taldeekin lankidetzan.

### **Bilboko etorkizuneko geltoki intermodala**

Etorkizuneko Bilboko autobus-geltokiaren lanen jarraipena egiten ari da FEKOOR, planoak oinarri hartuta, irisgarritasun-araudia betetzen dela bermatzeko. Horrez gain, hainbat bilera egin dira Bilboko Udaleko Obrak eta Zerbitzuak Saileko arduradunekin, bai eta proiektuaren exekuzioa koordinatzeko ardura duten pertsonekin ere.

FEKOORen Irisgarritasun Batzordea obraren planoak aztertzen ari da, irisgarritasun unibertsalean espezializatutako arkitektura-estudio baten aholkularitzarekin, arlo horretan zer hobekuntza egin daitezkeen hautemateko eta proposatzeko.

Kezka berezia sortzen dute geltokiko solairuetarako sarbide bertikalek, nasen eta geltokien irisgarritasunak, eta oinezkoentzat aurreikusitako pasabideek, une oro bermatu behar baitute mugikortasun urriko pertsonak desplazatu ahal izatea, eta geltokiko zerbitzu eta azpiegitura guztietara sarbidea izatea.

Proiektu honi ekarpenak edo iradokizunak egin nahi izanez gero, **fekoor@fekoor.com** posta elektronikoa bidez egin dezakezu, edota **94 405 36 66 telefono-zenbakira** deitu dezakezu.

### **Bilbobus zerbitzuaren irisgarritasuna**

Bilboko Udaleko Mugikortasun Sailarekin hainbat bilera egin dira, Bilbobus udal autobus-zerbitzuaren hobekuntza-arloak lantzeko.

Mugikortasun urriko pertsonak zerbitzua erabiltzeko zer zailtasun dituzten jakinarazi zaie, eta, horrez gain, zenbait hobekuntza-proposamen egin dira geltokien diseinurako eta autobusetarako. Besteak beste, gai hauei buruzko proposamenak egin dira: arrapalen funtzionamendu egokia bermatzea, autobusera segurtasunez igotzea eta bertatik segurtasunez jaistea bermatzen duten geltokiak diseinatzea, txartelak baliozkotzeko sistemak hobetzea mugikortasun urriko pertsonentzat, edo erabiltzaileen ainguratze- eta segurtasun-sistemak hobetzea.

### **Metro Bilbao**

Mugikortasun urriko pertsonak, Metroaren erabiltzaile diren aldetik, zer behar dituzten aztertzen eta lantzen jarraitzen du Irisgarritasun Batzordeak, bai eta hobekuntza-proposamenak egiten ere.

Arazo nagusietako bat geltokiaren eta mugikortasun urriko pertsonentzako bagoien mailaren arteko distantziak eragiten du oraindik (bereziki handia zenbait geltokitan); beraz, arrisku handia sortzen du bagoietara igotzean edo bertatik jaistean.

Metro Bilbao nasetako arazoa behin betiko konpontzeko neurri teknikoak aztertzen ari da, bai eta, guk proposatu bezala, bagoira igotzeko eta bertatik jaisteko sarbide seguruak seinalatzeko neurriak hartzen ere.

Lankidetzat-ildo horren ondorioz, Metro Bilbaok mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako eremua lekuz aldatzeari eta hobetzeari ekin dio; horrez gain, zenbait oztopo kendu ditu, hala nola erdiko barra, eta seinalaztapena hobetu du.

### **Euskotrenen 3. linea**

Euskotrenek Metroaren 3. linea kudeatzen duenez, harekin lankidetzan hasi gara. Zehazki, gai hauek jorratu ditugu: mugikortasun urriko pertsonen sarbide-aukerak (3. linean erdiko bagoian egiten baita), nasetara arteko distantzia txikitzea eta seinalaztapena.



Dagoeneko indarrean dagoen beste neurrietako bat mugikortasun urriko pertsonen laguntzaileentzako txartelak doakoak izatea da.

## BEHAR SOZIALAK HAUTEMATEKO PROIEKTU DIGITALA, BBK-K ETA INNOLAB PLATAFORMAK BULTZATUTA

**B**BK-k eta Innolab enpresak bultzatuta, plataforma digital bat garatzeko proiektuari buruzko hausnarketa-dinamiketan parte hartu dugu.

Beharrak hautemateko eta baliabideak esleitzeko tresna integral bat da, eta, horren bidez, BBK-k lehen eskutik eta modu eguneratuan jaikingo du zein diren Bizkaiko lurraldearen interesak. Proiektu hau analisi informatizatuan eta datu masiboen (Biga Data) ustiapenean oinarritzen da.

Plataforma horrek, estudio baten bitartez, informazio-iturriak, programazio-euskarria, lege-eskakizunak, funtzionaltasunak, jarduketadenborak, diseinu grafikoak, beste plataforma batzuekiko integrazioa, datuak bilatzeko eta digitalizatzeko sistema, eta beharrezkoa den informazio oro zehaztuko du, kudeaketa-arkitektura-ren funtzionaltasunak eta diseinua definitzeko.

## FEKOOR-EN LEHENTASUNAK

**F**EKOOR-en lehentasunen artean dago desgaitasuna duten pertsonen bizibaldintzak hobetzeko lan egitea, pertsona horien aukera-berdintasuna, parte-hartzea, bizimodu independentea eta inklusioa benetakoa izan dadin.

Lehentasunak dokumentu batean bildu ditugu, eta, orain, Bizkaiko Batzar Nagusietan ordezkaritza duten alderdi politiko guztiei helarazten ari gara.

Proposatutako neurrietan, jarduteko jarraibide konkretuak zehazten zaizkie administrazio publikoei, helburu hauek lortze aldera:

- Irisgarritasun unibertuala bermatzeko eta, eremu guztietan, pertsona guztientzako diseinua ezartzeko konpromisoa.
- Desgaitasuna duten pertsonak **lan-modalitate arruntean sartzea** eta gure kolektiboarentzat lan-baldintza duinak bermatzea.
- Desgaitasuna duten pertsona guztiek **beharra dutenek** **erretiro aurreratua** hartu ahal izatea.
- Pertsona guztien **hezkuntza inklusiboa** bermatzea.
- **Bizitza independentea xede duen gizarte-zerbitzuen** sistema bat ezartzea, eta gizartean parte hartu ahal izatea, beste herritarrekiko inolako desberdintasunik egin gabe.
- Euskadiko gizarte-zerbitzuen sistemako **prestazioen** eta zerbitzuen **zorroan bizitza independentearen proiektua sustatzeko prestazio ekonomikoa** sartzea.
- **Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE)** behar bezala eta behar beste erabiltzen dela ziurtatzea, gainerako zerbitzu eta prestazio guztien prestazio osagarria den aldetik.
- **Osasun-sistema eskuragarria** izatea, prestazio bermatu egokiekin eta nahikoekin.
- Pertsonen gaitasunak garatzen dituzten eta pertsonak **ahalduntzen** dituzten programak, prestakuntza-ekintzak eta informazioa, **modu independentean** bizitzeko eskubidea gauzatu dezaten.



## 2018KO JARDUERA SOZIOKULTURALEN PROGRAMA

**F**EKOORek urte osoan ematen du aukera “Sancho Azpeitia” jarduera soziokulturalen zentroan antolatzen ditugun ikastaro eta tailerretan izena emateko; inskripzio-epela zabalik egoten da.

### Teknologia berriak eta informatika

Taldeak eta edukiak ezagutza-maila guztietara egokitzen dira, eta, besteak beste, gai hauek lantzen dira: ordenagailuaren oinarriko erabilpena, sistema eragileak, Office (Word, Power Point, Excel), webguneak, posta elektronikoa, bideo- eta argazki-argitalpena, sare sozialak, eta autonomia pertsonalerako lineako beste tresna batzuk.

### Arte- eta sormen-tailerak

Hainbat diziplinatako jarduerak garatzen dira, baina, batez ere, hauek lantzen dira: pintura, zeramika, artisautza, birziklapena, larrugintza, pirograbatua, esmaltea...

Saioak asteartetan eta ostegunetan izaten dira, goizez (10:00etatik 13:00etara) nahiz arratsaldez (15:00etatik 18:00etara).

### Beste tailer batzuk

Ikasturte honetan ere, hainbat diziplinatako tailer monografikoen eskaintza dugu, hala nola hizkuntzak (ingelesa eta euskara, oinarriko maila), taldekako fisioterapia, erlaxazioa, sukaldaritza eta kantua.

Izena emateko interesa izanez gero eta/edo edozein ikastarori buruz informazio gehiago jaso nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan:

Sancho de Azpeitia kalea 2, behea, 48014 Bilbo  
Tel.: 94 405 17 80  
[www.fekoor.com](http://www.fekoor.com); eta [ocio1@fekoor.com](mailto:ocio1@fekoor.com)



## 2018KO AISIALDI-PROGRAMA

### Oporretarako programa

Bidaia Kanaria Handira, irailaren 13tik 30era.  
Kostua: 350€ laguneko.

### Joan-etorria

Asteburuko irteera Saloura, urriaren 11tik 14ra (California Garden hotela). Irteeraren barruan, bi txango daude sartuta: bata, Bartzelonara, eta bestea, Tarragonara.

### Familia-laguntzarako programa

Aisialdirako jarduera hauek antolatuko dira mendekotasuna duten pertsonentzat, zainzaile nagusiei atsedean apur bat emateko asmoz. Irteera hauek egingo dira:

Cascante: uztailearen 13tik 15era.

Valentzia: irailaren 8tik 18ra.

Bestalde, urrian eta azaroan irteerak antolatuko dira Lekarozera eta Ejea de los Caballerosera, baina datak oraindik zehazteko daude.

Guztira, 20 laguntza-begirale ditugu, eta desgaitasuna duten 20 lagunentzako lekua dugu.

Informazio gehiago behar izanez gero edo edozein aisialdi-jardueratan izena eman nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan:

Sancho de Azpeitia 2, Behea  
Bilbo-Deusto  
Tel.: 94 405 17 80



# ELKARTUZ TOPAKETA. BIZIMODU INDEPENDENTEA. NIK AUKERATZEN DUT NON, NOLA ETA NOREKIN

**E**kainaren 14an ospatu zen **elkartu** elkar-teak antolatutako hirugarren Elkartuz Topaketa; aurtengoan, bizimodu independentea landu dute *Bizimodu independentea. Nik aukeratzen dut non, nola eta norekin* izeneko topaketan.

Topaketa Donostiako Tabakalera izan zen, eta jende ugari bildu zen, bai gutxitasun fisikoak dituzten pertsonak bai erakundeetako ordezkariak, gizarte-politiken alorreko langileak eta hirugarren gizarte-sektoreko elkar-teetako ordezkariak.

Hasierako hitzartzea elkartu elkarteko ordezkari batek egin zuen, eta *Bizimodu independentea. Jatorria eta eskubide baten bilakaera, eta eraginkorra bihurtzeko erronkak* izeneko hitzaldian, bizimodu independentearen eredia nola sortu zen azaldu zuen, labur-labur, eta horri lotutako printzipioak hainbat jardun-eremutan (etxebizitza, diru-sarreraren bermatzea, laguntza pertsonala, laguntza-produktuak eta irisgarritasun unibertsala) Federazioak nola bultzatu dituen kontatu zuen. Horrez gain, hainbat proposamen egin zituen, eredu horretan eraginkortasun handiagoz eta erabakitazunez aurrera egiteko aukera emango dutenak:

- Autonomia-erkidegoko esparru arauemaile bat bultzatzea, zeharkako ikuspegi batez Euskadin bizimodu independentea izatea arautzeko, ezartzeko, sustatzeko eta garatzeko neurriak eta baliabideak zehaztuko dituen.
- Gipuzkoako “Bizimodu independentearen programa” bultzatzea, programa hori zabalduz, sustatuz eta behar duen aurrekontu-partida ezarritz.

- Desgaitasuna duten pertsonen desinstituzionalizazioarako politikak eta neurriak sustatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen autogestio eta autonomia bermatuko duten baliabideak, zerbitzuak eta prestazioak sustatzea, eta zuzeneko ordainketa lehenestea, zerbitzuak ematearen orde.
- Bizimodu independentea xede duten esku-hartze sozialak diseinatzea.
- Hainbat arlotan (etxebizitza, hezkuntza, enplegua, gizarte-zerbitzuak, etab.), politika eta neurri inklusiboak bermatzea.
- Bizimodu independenterako eskubidea bermatzen duten politiken zeharkakotasuna, erakunde eskudunen lankidetzeta eta koordinazioa, eta desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituen hirugarren gizarte-sektorearen parte-hartze erreala eta eraginkorra sustatzea.
- Eraldaketa soziala bultzatzea, gizartean bizimodu independentearen balioak eta printzipioak sustatzeko.
- Ezagutzaren sormena eta transferentzia bultzatzea, bai eta bizimodu independentearen alorreko ikerkuntza ere.
- Proiektu edo bizipen berritzaileak bultzatzea, bizimodu independentea eratzen, sustatzen, ezartzen eta garatzen lagunduko dutenak.



Jardunaldian, Antonio Iañez Domínguez Pablo de Olavide Unibertsitateko irakasleak ere hitz egin zuen; zehazki, laguntza pertsonalaren eragin ekonomikoa eta soziala aztertu zituen. Amaitzeko, bizimodu independenterako eskubidea gauzatzeko elementuei buruzko mahai-inguru bat egin zen. Mahai-inguru horretan, pertsona hauek hartu zuten parte: César Campos (Bizimodu independentearen programako kidea), Lucía Iraundegui (laguntzaile pertsonala), Miren Karmele López de Ipiña (EleKin Giza Ingeniaritza eta Bioingeniaritza taldeko koordinatzailea), Patxi Galarraga (Projekta Urbes aholkularitzako arkitektoa) eta Xabier Urmeneta (bizimodu independentean aditua).

Finean, bizimodu independentearen eredia eza-gutzeko, hedatzeko, ezartzeko eta garatzeko interesa duten pertsonak, eragileak eta erakundeak elkartzeko topaketa bat izan zen, eta, bide batez, **elkartuk** aukera izan zuen gutxitasun fisikoak dituzten pertsonen eskaerak eta proposamenak mahaigaineratzeko, bizimodu independentea izateko eskubidea –Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan aitortua– gauzatu dezaten.

## MENDEKOTASUN- ALORREKO PRESTAZIO EKONOMIKOAK ARAUTZEKO DEKRETU BERRIA

**G**ipuzkoako Foru Aldundiak foru-dekretu berria argitaratu zuen 2017ko abenduaren 28an: 24/2017 Foru Dekretua, abenduaren 12koa, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta zainketa sustatzekoak, ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituen.

Foru-dekretua egiteko prozesuan, **elkartuk** jakinarazi du ez dagoela ados egin diren aldaketa gehienekin eta, bereziki, zehaztapen hauekin:

- Onartu berri diren zenbatekoetan, atzerakada handia egin da familia inguruneko zaintzan, pertsona-kopuru handiari murriztu baitiete hileko zenbatekoa.
- Familiako zainzaileei prestakuntza bat izatea eskatuz, are gehiago baldintzatzen da, eta zailtzen jartzen da, zainketa ez-profesionalen arloan egiten den lana –gehienetan emakumeek betetzen dute–, eta ez da aitortzen pertsona horien konpromisoa, dedikazioa eta desgaitasuna duten pertsonen ematen dieten arretaren kalitatea.
- Desgaitasuna duten pertsonen jasotzen dituzten zainketak kalitatezkoak diren frogatzeko, jarraipena egiteko obligazioa ezartzen da; besteak beste, etxera bisita bat egitea. Hain zuzen, jarraipen hori egiteko obligazioari dagokionez, **elkartuk** adierazi du ez dagoela ados neurri horrekin, ez baitu inolako ekarpenik egiten, eta, horrez gain, zailtzen jartzen baitu familia ingurunean edo laguntzaile pertsonalaren bitartez egiten den zainketaren kalitatea.
- Aurreko irizpidean ez bezala, dedukzioen eta murrizketen emaitza zero eurokoa denean prestazioa ez onartzeari dagokionez, **elkartuk** salatu du irizpide horrek kalte larria egin diezaiekeela, familia inguruneko mendekotasun-egoera batean arreta emateagatik, zainketa-lanaren kotizazio-kostuak beren gain hartu dituzten familiako zainzaileei.

Aipatutako gaiez gain, Federazioak salatu du foru-dekretu berriak desgaitasuna duten pertsonen aurkako diskriminazioa larria egiten duela; izan ere, Familia inguruneko zaintzetarako zein profesionalak ez diren zainzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa eskuratu ahal izateko baldintzatzen ezartzen du profesionalak ez diren zainzaileek behar adinako gaitasun fisiko eta psikiko izatea, bere kabuz modu egokian emateko mendeko pertsonak behar dituen zainzak eta laguntza. Aurrekoaren ondorioetarako, zain-

tzailea ezingo da izan mendekotasun aitortua duen pertsona, baliaezintasun handiko pentsioa edo beste pertsona baten laguntza aitortua duena; era berean, ezingo du izan % 65eko desgaitasuna edo handiagoa.

**elkarturen** iritiz, ageriko diskriminazio-egoera bat da, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioan jasotako printzipioak eta eskubideak urratzen dituen; izan ere, desgaitasuna duten pertsonen zaintzaile ez-profesional izateko ezintasuna eranstean die, eta, horrez gain, gainerako herritarrei ez bezala, pertsona horiei ukatu egiten baitaie udaleko gizarte-zerbitzuek, egokitasuneko edo egokitasun ezaren txosten bat eginez, pertsona horiek zaintzaile ez-profesional izateko gaitasuna duten ala ez egiaztatzeko eskubidea. Hori dela eta, berraztertze-errekurtso bat jarri da, mendekotasun-egoerei erantzuteko dauden baliaideei eta prestazioei dagokienez (oso arlo garrantzitsua da), desgaitasuna duten pertsonen eskubideak babesteko xedez.

## AGERRALDIA BATZAR NAGUSIETAN, PERTSONA GUZTIENTZAKO TURISMOA BULTZATZEKO

Martxoaren 21ean, **elkartuk** agerraldia egin zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietan, Gipuzkoako turismo-ereduari buruzko batzorde txostengilean, turismo irisgarriari / pertsona guztientzako turismoari buruz zer iritzi edo jarrera duen azaltzeko. Desgaitasuna duten pertsonen turismoan besteen baldintza berdinetan parte hartzeko duten eskubidea aitortzen dute nazioarteko, nazioko eta erkidegoko arauak. Hain zuzen, arau horiek aztertu ondoren, turismo irisgarriari / pertsona guztientzako tu-

rismoari dagokionez Gipuzkoako hainbat tresnatan eta dokumentu estrategikotan (webgune ofizialak, turismoko gida-planak, turismo-gidak, etab.) zer gabezia dauden azaldu zen.

Horrez gain, Federazioak zenbait proposamen defendatu zituen, turismo-baliabideak eta -zerbitzuak baliatzeko eta horiez gozatzeko pertsona guztiek duten eskubidea bermatzeko helburuz; besteak beste, hauek aipatu ziren:

- Erakundeen eta politikarien konpromisoa
- Gipuzkoan, Turismo Irisgarriaren aldeko Plan bat egitea.
- Turismo irisgarriari / pertsona guztientzako turismoari balioa ematea.
- Turismo-baliabideen eta -zerbitzuen irisgarritasun-baldintzei buruz benetako informazioa eta informazio eraginkorra ematen dela bermatzea.
- Gipuzkoako turismo-politiken gobernantzan eta, bereziki, Gipuzkoako Turismo Mahaian desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituen hirugarren sektorearen parte-hartzea sustatzea.



## LANKIDETZA IGARTUBEITI ETA ZUMALAKARREGI MUSEOEKIN, BERTAKO IRISGARRITASUNA BULTATZEKO

**Elkartu** lankidetzan aritu da Igartubeiti Baserri Museoarekin eta Zumalakarregi Museoarekin, irisgarritasun-baldintzak bermatzeko, eta, horrela, museo horietako zerbitzuez eta jardueraz pertsona guztiek berdintasun-baldintzetan gozatu ahal izango dutela ziurtatzeko.

Lankidetzaren horren baitan, bi museoen irisgarritasun-baldintzei buruzko azterketa bat egin da, alde batetik, kasuan-kasuan dagozkien hobekuntza-neurriak hartzeko, eta, bestetik, beren webguneen bitartez museoen instalakuntzen eta zerbitzuen irisgarritasunari buruzko informazio zehatza emateko. Horrez gain, **elkartuk** irisgarritasunari eta bete beharreko neurriei buruzko prestakuntza berezia eman die langileei, kulturabaliabideen irisgarritasun- eta inklusio-baldintzak bermatzeko.

Pertsona orok lor dezake gaiari buruzko informazioa

[www.zumalakarregimuseoa.eus](http://www.zumalakarregimuseoa.eus)

eta

[www.igartubeitibaserrria.eus](http://www.igartubeitibaserrria.eus)

webguneetan, bai bertan ematen dituzten jarduerari eta zerbitzuei buruzkoa bai bertako irisgarritasun-baldintzei buruzkoa.

Aurrerantzean ere, **elkartuk** lanean jarraituko du pertsona guztiek izan dezaten aukera Gipuzkoako kultura-baliabideetara sarbidea izateko eta horietan berdintasun-baldintzetan parte hartzeko, eta, horretarako, noski, funtsezkoa da irisgarritasun unibertsalaren baldintzak bultzatzea.

## EMAKUMEA ETA DESGAITASUNA: AHALDUNTZE-TALDEA

**Elkartuk** desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze-talde bat jarri du martxan, Donostiako Udaleko Berdintasun Sailarekin lankidetzan. Ekimen honen xedea da desgaitasuna duten emakumeek –desgaitasuna izateagatik eta emakume izateagatik– bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera lantzea, ahultasun eta desparekotasun handiagoko egoera batean jartzten baititu.

Talde horren helburua da desgaitasuna duten emakumeen eskubideak ezagutaraztea eta sustatzea, norbanakoen eta taldeen ahalduntzean sakontzeko eta, horri esker, berdintasun-politikan aurrera egiteko. Bilkurak Donostiako Emakumeen Etxean izaten dira, xedea baita desgaitasuna duten emakumeek komunitateko baliabide arruntetan parte hartzea, eta Emakumeen Etxea, hain zuzen, genero-desparekotasuna desagerrarazteko lanean diharduten talde eta elkarte guztiak biltzeko gune bat da.

Oso esperientzia aberasgarria izaten ari da, eta, horregatik, desgaitasuna duten eta bilkuretan parte hartu nahi duten emakumeak animatu nahi ditugu **elkarturekin** harremanetan jar daitezten.

